

ZER BISITATU DONOSTIAN?



Hodei de Isusi eta Eider Osoro

- ALDE ZAHARRA

Donostiako turismo bulegoaren arabera, Donostiako lekurik bisitatuena tokirik bisitatuena, zalantzarik gabe, Alde Zaharra da. Hiriko bigarren auzorik zaharrena da, Antiguu eta gero. Urgull mendiaren oinean dago, portua itsasoaren aldean, eta Urumea ibaia beste aldean.

Alde zaharrean barneratzeak Donostiako benetako gizarte-zentroa ezagutzea esan nahi du, 1813ko sutea oroitarazten duen abuztuaren 31ko kale harriztatuak tabernaz beteta daude hiriko pintxo onenez gozatu ahal izateko, eta bertako eraikin enblematikoak, hala nola Koruko Andre Mariaren Basilika eta San Bizente eliza, oso erakargarriak dira.

Konstituzio Plaza, Gipuzkoako hiriburuko ospetsuenetako bat, bizitzaz beteriko lekua eta herriko jai garrantzitsuenen eszenatokia dena, danborrada egunean batez ere.

Alde Zaharra hiru elementu naturalek mugatzen dute: Urgull mendiak, Urumea ibaiak eta Kontxako badiak. 1863ra arte, hiriko harresiak ere mugatzen zuen; urte horretan, harresia botatzea erabaki zen, hiriaren zabalgunerari ekiteko. Lehenago, harresi-barneko ia etxe guztiak suntsitu zituzten 1813ko abuztuaren 31n, Napoleonen tropen aurkako independentzia-gerran.



- KONSTITUZIO PLAZA:

Alde Zaharreko bihotza Konstituzio plazak hartzen du. Eraikin nagusia Donostiako Udaletxea izan zen berrogeiko hamarkadara arte. Bertako etxeetako balkoiek zenbakiak dituzte, hau zezen plaza zen garaitik dator, balkoi hauek alokatu egiten zirelako familiek zezenak ikusi ahal izateko. Gaur egun, ordea, Konstituzio Plaza bizitzaz betetako lekua da, eta jai garrantzitsuenak bertan ospatzen dira: urtarrilaren 20an, Donosti eguna edo ezagutzen dugun bezala

danborrada eguna, bandera igo eta jaitsi egiten da, abenduaren 21ean, San Tomas egunean, etab.



- SAN VIZENTE ELIZA:

Hiriko elizarik zaharrena da. XVI. mendearen lehen erdian eraiki zuten estilo gotikoan, eta barruan erromanikoko erretaula onenetako bat dago, Ambrosio de Bengoecheak eta Juan de Iriartek egina. Harekin batera, 1868ko Cavaille-Coll organo frantsesa dago. Alboko fatxadan, Jorge Oteiza artistaren "Pietatea" eskultura. San Bizenten bataiatutakoei "koxkeroak" esaten zaie, elizako harri irtenengatik (koxkak).



- SANTA MARIA BASILIKA:

XVIII. mendeko obra barroko ikusgarria da, Donostiako Alde Zaharrean, Kale Nagusiaren buruan dago. Artelan honetan aipagarria da hiriko zaindaria den Koruko Ama Birjinari eskainitako erretaula nagusia. Bataiarriaren ondoan, Eduardo Chillidaren gurutze formako eskultura bat ikus daiteke. Basilika 1743 eta 1774 urteen artean eraiki zen. Ate nagusiak bat egiten du lerro zuzenean Artzain Onaren Katedraleko sarrerarekin. Santa Marian bataiatutakoei "josemaritarrak" esaten zaie.



- SAN TELMO MUSEOA:

Alde zaharrea aipatuko dugun azken gauza, San Telmo Museoa da, XVI. mendeko komentu domingotar zaharra, kuartel militar izatera pasa zena eta gaur egun Euskal Gizartearen eta Herritarren Museoa dena.



- **URGULL**

Urgull mendia, Motako gazteluaren etxea, damen bateria, ingeles hilerria eta gobernadorearen bateria, besteak beste, Euskadiko defentsa-gune interesgarrietako bat da. Donostia bisitatzeko duten pertsonak gehien bisitatzeko duten guneetako bat. Ez da harritzekoa, izan ere, Donostiako Alde Zaharraren eta Pasealeku Berriaren artean dagoen mendi txiki honek, Kantauri itsasoaren parean, Kontxako badiaren muturretako batean, Gipuzkoako hiriburuko ikuspegi onenetako batekin harritzen gaitu. Egun eguzkitsuetan hiria eta inguruko guztia ikusteko aukera ematen digu hemendik.

Urgull mendia Donostia hiriko birika berdeetako bat da, 253.500 metro karratu baino gehiagoz osatuta. Mendian zehar ibilbide ezberdinak aurkitzen

ditugu edozeinek egin ditzakenak, familiako txikienetatik aitona amonetaraino, horrela mendi tontorrera iritsi gaitezke eta bertako paisaiez disfrutatu. XIX. mendera arte hiria zerbitzatu zuten defentsak Euskal Herriko aire zabaleko museo garrantzitsuenetako bat dira gaur egun. Defentsa-gune horretako elementu asko kontserbatzen dira; horien artean, kanoi- bateriak, “el polvorin” edo ingelesen hilerria nabarmentzen dira.



- KONTXA ETA ONDARRETA HONDARTZAK

Kontxa hondartza Donostiako erdialdean dago, eta izena airetik ikusita maskor baten formarekin duen antzekotasunagatik datorkio. Sakonera txikiko urak dituen hondartza da eta, sarritan, itsasaldiek Kontxa hondartzako azalera erabilgarria murrizten duten arren, beti eskaintzen ditu ikuspegi zoragarriak. Gainera, estropada ospetsuen bitartez, milaka zale hurbiltzen dira hondartzara txapelketa gertu-gertutik jarraitzeko. Aste Nagusian, su artifizialei esker, eszenategi handi bat bihurtzen da.

Kontxan era guztietako zerbitzuak ematen dira, toldo alokairuetatik hasita, komun, dutxa eta arropategietaraino. Gainera, mota guztietako kirol zerbitzuak eskaintzen dira: piraguen alokairua, padel surfak,.



- SANTA KLARA UHARTEA

Hiri gutxik esan dezakete bere badian uharte bat dutela, eta Donostia da horietako bat. Uharte txiki honetan gauza askoz gozatu daiteke, hirira begira

dagoen hondartza txikiaz, ur naturaleko igerilekuaz, itsasargiruntz dauden ibilbideez, bertan aukitu ditzakegun mahaiez eta tabernako terrazaz goza daiteke. Badiako hondartzetatik gertu dagoenez, urte osoan zehar igerian iritsi daiteke uharteraino.

Zenbait gauza bitxi ditu uharte honek, 1597an izurrite beltza hirira heldu zenean, kutsatuak Santa Klara uharteko ermitara eraman zituzten. Uhartean sugandila azpiespezie endemiko bet bizi da, Donostiako sugandila iberikoa. Sugandila mota hau Santa Klara uhartean eta Urgull mendian bakarrik bizi da.



- HAIZEAREN ORRAZIA

Haizearen orrazia altzairuzko hiru eskulturaz osatuta dago, bakoitzak 9 tona baino gehiago pisatzen ditu. Hiria amaitu eta itsasoa hasten den lekuan dago, Igeldo mendiaren hasieran. Eduardo Chillidak hiru eskultura jarri zituen bertako harkaitzetan, haizea beti Kontxako badian orraztuta sar zedin. Eskulturak dauden tokietatik badirudi harkaitzetatik ateratzen direla.

Hiru eskultura soilik ikusten ditugu guk baina hauek osatzeko 23 egin zituen eta ondoren 3 aukeratu zituen bertan jartzeko. Eskulturaren izen originala Haizearen orrazia XV da, izan ere 23 eskulturako multzo honetatik hamabostgarren postuan daude azkenik aukeratu zituen hauek. Leku hau aukeratu zen Chillidaren eskulturak jartzeko txikitan leku hontara ihes egiten zuelako, oso gustuko baitzuen olatuek talka nola egiten zuten ikustea harkaitzen kontra.



- IGELDO MENDIA:

Igeldo mendia Kontxako badiaren muturrean dago, itsasoaren eta hiriaren arteko mugan. Iragana eta oraina batzen dituen leku bat, non zure haurtzaroa gogoratuko duzun jolas-parke pintoresko bati esker. Bertan iraganera bidaiatuko duzu 1912ko funikular batean, eta hiriko ikuspegiez gozatuko duzu.

Gailurretik hiri osoa ikusten da, baina baita Gipuzkoako kostaldearen eta Kantauri itsasoaren zati bat ere. Igeldo mendian sekretu bat ezkutatzen da, bere esentzia galdu ez duen jolas-parke bat.

100 urte baino gehiago dituen funikular bat hartzen da mendia igotzeko. Egurrezko bagoiak dituen kremailera-funikularra da, mendiaren magalera eta jolas-parkera igotzen zaituena. 1912ko abuztuaren 25ean inauguratu zeneko esentzia mantentzen duen funikularra, Euskal Herriko zaharrena da.

Igeldo mendira igotzea iraganera eramango zaituen esperientzia da. Ibilbidea geltokitik hasten da, hiriko eraikinik politenetako batetik. Naturaz eta bidaia honek oparitzen dizkizun ikuspegiez gozatu ahal izango duzu.



INFOGRAFIA:

- urgull:

<https://www.rsbap.org/index.php/extractos/article/download/4758/4456>

- hondartzak:

https://repositori.uji.es/xmlui/bitstream/handle/10234/172084/TFG_2017_GonzalezAlonsoPatricia.pdf?sequence=1

- haizearen orrazia:

[El Peine del Viento, una escultura de Eduardo Chillida - San Sebastián Turismo \(sansebastianturismoa.eus\)](#)

- kontxa eta ondarreta hondartzak:

https://repositori.uji.es/xmlui/bitstream/handle/10234/172084/TFG_2017_GonzalezAlonsoPatricia.pdf?sequence=1

- santa clara uhartea

<https://www.sansebastianturismoa.eus/es/blog/donosti-feeling/473-isla-santa-clara>

- alde zaharra

<https://www.coam.org/media/Default%20Files/fundacion/biblioteca/revista-arquitectura-100/1993-2000/docs/revista-articulos/revista-arquitectura-1997-n309-pag109-111.pdf>

<https://www.sansebastianturismoa.eus/es/hacer/que-ver-san-sebastian/parte-vieja-donostiarra>

- igeldo mendia

<https://www.sansebastianturismoa.eus/es/hacer/que-ver-san-sebastian/monte-igeldo>